

Nola egin trantsizio digitala arrakastaz eleaniztasunetik?

'Hizkuntzaren Ekonomia Berriko Trantsizio Digital Eleaniztunari' buruzko Jardunaldia egin da Donostian



Eneko Agirre, Alfonso Ureña, Eva Ferreira, Bingen Zupiria, Cristina Gallach eta Miren Dobaran.

Osteguna, 2 ekaina 2022, 13:29



Ehun parte-hartzaile baino gehiagorekin, 'Hizkuntzaren Ekonomia Berriko Trantsizio Digital Eleaniztunari' buruzko Jardunaldia egin zen asteazkenean, ekainaren 1ean, Donostiako Miramar Jauregian. Jarduera SEPLN Hizkuntza Naturala Prozesatzeko Espainiako Elkarteak antolatu du, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta UPV/EHUko HiTZ zentroaren laguntzarekin, eta USCko CiTIUSen, CENIDen, Jaengo Unibertsitateko CEATICen eta BSCren laguntza ere izan dute antolatzaileek.

Trantsizio digitala funtsezkoa den honetan, eta Adimen Artifiziala ezinbesteko tresna, jardunaldian aztertu zen, besteak beste, nola egin arrakastaz trantsizio hori eleaniztasunetik; nola bermatu gure hizkuntzen eta kulturaren inbentario digitala eta nola hibridatu garapenera erabilgarri...

eta kulturen iraupen digitaia eta noia dinuritu sozioekonomikoki errentagarri eleaniztasuna, berrikuntza, zerbitzuak, produktuak eta negozio-eredu berriak aintzat hartuta.

Izan ere, hizkuntza funtsezkoa da arlo guztietan: «Hizkuntzak giza adimena bultzatzen du. Hizkuntza informazioa transmititzeko eta eskuratzeko modurik ohikoena eta moldakorrena da. Hizkuntza erabiltzen dugu, gure komunikazio-ingurune naturala, informazioa kodetzeko, biltegitatzeko, transmititzeko, partekatze eta manipulatzeko».

«Hizkuntzaren Teknologia da, ziurrenik, Adimen Artifizialaren alorrik berritzaileena. Zoritxarrez, aurrerapen teknologiko nabarmen hori ez da berdin garatzen hizkuntza guztietan»

Edonola ere, «eskuragarri dagoen informazio digital gehiena ez dago egituratuta hainbat hizkuntzatan (idatziak edo hitz egindakoak), eta hori erronka bat da informazio hori ustiatu eta prozesatu nahi duen edozein erakunderentzat. Beraz, hizkuntza da eta egon behar du gure ahaleginen erdigunean Adimen Artifiziala garatzeko, eta alderantziz. Izan ere, gaur egun, Hizkuntzaren Teknologia da, ziurrenik, Adimen Artifizialaren alorrik berritzaileena, hazkunde azkarreko inpaktu ekonomikoa duena. Zoritxarrez, European Language Equality proiektuaren emaitzek erakusten dutenez, aurrerapen teknologiko nabarmen hori ez da berdin garatzen hizkuntza guztietan. Haien artean distantzia handia dago.»

Lankidetzaren garrantzia

Testuinguru horretan egin ziren ekarpenak, eta nabarmendu zen, besteak beste, ekimen publikoen arteko lankidetzaren garrantzia. Topaketaren irekieran parte hartu zuten Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Eva Ferreira UPV/EHUko errektoreak eta Alfonso Ureña SEPLNko presidentek nabarmendu zuten horrelako ekitaldi bat egitearen garrantzia, «administrazio publikoko, industria- eta enpresa-arloko arduradunak eta esparru zientifikoko eta akademikoko adituak bertan direla».

Bingen Zupiriak adierazi zuenez gure gizartea «gero eta eleaniztunagoa eta gero eta teknologikoagoa da, eta errealitate horrek gobernuok politika zehatzak diseinatzen eta gauzatzen garamatza». Zupiriaren hitzetan

«hizkuntzek elkarren ondoan bizi behar dute, handiek eta txikiek; badago lekua guztientzat, eta gure obligazioa da gure hizkuntza minorizatuaren trantsizio digital arrakastatsua bultzatzea eta gauzatzea». Hizkuntza-teknologietan eta adimen artifizialean euskara modu eraginkorrean integratzearen «ardatza elkarlana da, erakunde publikoen konpromisoa eta ikerketa-zentroen eta enpresen ezagutza eta esperientzia etengabe uztartzea ezinbestekoa da». Abiapuntu hau kontutan izanik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak «GAITU Hizkuntza-teknologiaren Ekintza-plana 2021-2024» jarri du martxan. Eusko Jaurlaritzako sailen arteko Ekintza-plana da eta abian dauden proiektuak jasotzen dituena, baita legegintzaldian zehar garatuko direnak ere.

Eva Ferreira UPV/EHUko errektoreak, bere aldetik, adierazi zuen «askotan ekonomia globalaz» hitz egiten dela, baina «ez hainbeste horren ondorio konponezinaz: kultura globalaz. Hizkuntzak ez dira espazio berezietan bizi, baizik eta gainjarri egiten dira, muga fisikoak eta muga politikoak, neurri handi batean, desagertu diren mundu batean. Hizkuntzen arteko zubiak eraiki behar dira teknologia berrien bidez. Eta, alde horretatik, HiTZ ikerketa-zentroa erreferentzia da gaur egun nazioartean.»

Jauzi handi bat

Jardunaldiaren lehen saioan, Hizkuntzaren Teknologiarri buruz abian dauden ekimen publikoak aurkeztu ziren. Cristina Gallachek, Hizkuntzaren Ekonomia Berriaren aldeko Aliantzarako ordezkari bereziak, «ekonomia digital berrian hizkuntza koofizialak bultzatzeko ekimenen lankidetzaren beharrezkoa dela nabarmendu zuen, hala nola Aina proiektua katalanez, Gaitu proiektua euskaraz eta Nós galizieraz. Ekimen horiek PERTErekin koordinatu behar dira, ekimenen arteko sinergiak bultzatzeko eta gizartean duten eragina biderkatzeko.».

Xabier Arrieta Eusko Jaurlaritzako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendariak GAITU ekintza-plana aurkeztu zuen. «Eusko Jaurlaritzan urte asko daramagu hizkuntzen teknologiek lan egiten. Duela laupabost urtetik jauzi handi bat egin dugu azpiegiturretan adimen artifiziala erabiltzeko aukera ematen duten elementuak txertatzeko orduan. Horri esker, eta inguruan dugun tradizio luzeko enpresa ekosistemak lagunduta, egoera eta posizio onean gaude hizkuntzen teknologien alorrean» adierazi du; David Ferrer Kataluniako Generalitateko Politika Digitalen idazkariak AINA teknologia plana aurkeztu du; Galiziako

Juntako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi Valentín Garcíak Nós proiektua azaldu zuen; eta Valentziako Generalitateko Análisi eta Política Publikoen zuzendari nagusi Ana Berenguer, Valentziako komunitatearen ekimen publikoak.

Parte-hartzaile guztiek nabarmendu zuten oso garrantzitsua dela hizkuntza anitzeko garapen bateratua, gizarte eleaniztunaren aldeko apustu irmoa egin behar dela, eta ezinbestekoa dela espainierarako, katalanerako, galizierarako eta euskararako garapenetan laguntzea, datuak, baliabideak eta adituak emateko, trantsizio digital eleanitza arrakastaz egiteko eta gure hizkuntzen eta kulturen iraupen digitala bermatzeko.

Hizkuntzaren Industriari buruzko bigarren saioan, Diego Vazquezek (imaxin | software), Celia Sanchezek (1MillionBot), Eudald Camprudik (Nuclia) eta Lohitzune Txarolak (Langune) nabarmendu dute PERTEren zeregina beharrezkoa dela, baina ez nahikoa, hizkuntzak heldutasun teknologikoko egoera batera eramateko, gizartearen eta ekonomiaren abangoardian kokatzeko, eta, aldi berean, produktu digitalen garapena ahalbidetzeko.

Multinazional handien esku

Hirugarren saioa Alfonso Ureña SEPLNko presidentek moderatu zuen eta Hizkuntzaren Teknologiaren Ikerketa izan zuen ardatz. Parte-hartzaile guztiek, Rodrigo Agerrik (HiTZ), Marta Villegasek (BSC), Marcos Garcíak (CiTIUS) eta Rafael Muñozek (CENID), paradigma-aldaketaren garrantzia azpimarratu zuten: «Ehun hizkuntza baino gehiago aldi berean itzultzea, irudien eta argazkien deskripzioak sortzea, giza prosaren testu bereizezina sortzea, antzerki-lanen gidoiak sortzea, deskripzioetatik abiatuta irudi fotorrealistak sortzea... Gaitasun izugarriak izan arren, hizkuntza-eredu handiek hainbat eragozpen dituzte».

Gaur egun, alegia, multinazional handien esku dago haien garapena. Rodrigo Agerri UPV/EHUko HiTZ zentroko Ramon y Cajal ikertzaileak azpimarratu zuen «eredu aurreratuenak ingeleserako eskuragarri», eta ez dagoela argi «egungo teknologia hiztun gutxiagoko hizkuntzekin erabil daitekeenik». Eredu horiek energetikoki ez dira eraginkorrak, eta joera kezkarriak dituzte, adibidez, generoari dagokionez. Gainera, ez dugu argi ulertzen nola funtzionatzen duten, noiz huts egiten duten eta zer propietate sortzen ari diren. TLren buru izateko, ezinbestekoa da arloko ikertzaileak onenak inplikatzeko, ordu berean behar besteko finantzaketaz hornitzea eta

onienak inplikaketa, arlo hori behar besteko inbentzaketaz inbentzea eta diziplinarteko lankidetzaz sustatzea.»

Talentua erakarri eta gaitu

Hizkuntzaren teknologiarik buruzko prestakuntzan zentratutako azken saioan, Maite Oronozek (HiTZ) eta Maite Martinek (CEATIC) hizkuntza ardatz duen IAn aditu nahikoak gaitzeko premia azpimarratu zuten. «Arlo honetara talentua erakartzeko pizgarriak ere behar dira; izan ere, beste herrialde eta multinazional batzuk gogor ari dira talentu hori lortzeko lehian», azpimarratu zuen Maite Oronozek, UPV/EHUko Erasmus Mundus hizkuntzaren teknologiarik masterreko zuzendariak. «Inoiz ez dugu horrelako aukerarik izan gure hizkuntzetan TL bultzatzeko, trantsizio digital eleanitza arrakastaz egiteko eta gure hizkuntzen eta kulturen iraupen digitala bermatzeko. Eleaniztasunaren errentagarritasun sozioekonomikoa lortzea da erronka: berrikuntzaren bidez, zerbitzu, produktu eta negozio-eredu berriak sortuz, balio erantsiko TLan oinarrituta. Nolanahi ere, denbora-tarte mugatua izango duen aukera-leiho bat dugu. 2025eko horizontean agerikoak izan beharko lirateke PERTEren emaitzak, gure hizkuntzen heltze teknologikorako talka-plan gisa. Bestela, agian behin betiko galduko da Espainiak TLren inguruko ekonomia bere hizkuntzetan gidatzeko aukera», ondorioztatu du.

TEMAS Zabalik

TENDENCIAS